

ILARGI

21 urte

"Askatasuna ez da loturak ez edukitzea. Igual da loturak edukitzea baina, nik erabakiko dut zer lotura nahi ditudan eta zer ondorio izango ditudan nire bizitzan"

ANER

19 urte

"Aske izatea eskubide bat dela esan badugu, eta gure askatasun indibidual eta kolektibo horiek defendatzen baditugu, gero horiek defendatzea eta behar direla esatea ez da nahikoa. Baizik eta egi bihurtzea eta horien alde borrokatzea eta horiek gero praktikan jartzea behar da"

ANDREI

19 urte

"Askatasuna daukazun izaera sakonena ez mozzorrotzea eta bizitzan aurkituko dituzun hertsapenei erantzun bat ematea da"

BEGOÑA

20 urte

"Askatasunaz hitz egiterakoan zeintzuk dira mugak? Askatasuna erreal eta partekatua izateko oinarritzkoa da komunikazioa egotea"

MAIALEN

22 urte

"Askatasuna praktikan jartzeko edo egikaritzeko badaude betebeharrak batzuk ere. Betebeharririk gabeko askatasun bat denean, askatasun likido bat bezalakoa da"



GERUZAK

Askeak garela
uste al duzu?

Zu aske
sentitzen
al zara?

Aske/ Ez-aske
balantzan zure
bizitzan zerk
pisatzen du
gehiago?

Askatasunaren gaiak zer
galdera sortzen dizkizu?

Zer da ASKATASUNA zuretzat?

Zer hitzekin
erlazioatuko zenuke?
Jarri zuri bururatzten
zaizkizunak ere.

Askatasun hitzak
zer sentimendu
eragiten dizkizu?

Dilema
Erabakimena Errepresioa
Lotura
Bizitza
Berdintasuna Aniztasuna
Aukera Barrukoa
Lotsa Paradoxa
AHOTSA Jarrera
Damua Plazera
Arazoa Uko egitea
Iraultza ARAUA Erantzunkizuna Zalantza
Sufrimendua Konpromisoa
Bakea Arriskua Helburua Duintasuna
Indibiduala Gorputza Bidea Justizia
Kolektiboa

• HARROTASUNA

• LASAITASUNA

• KONFIANTZA

• POZA

• BELDURRA

• DEZEPZIOA

• GOGO BETETASUNA

• KEZKA

• ESTUASUNA

• HASERREA

• ZORIONTASUNA

• ZIURGABETASUNA

• URDURITASUNA

• ITXAROPENA

• TRISTURA

• AUSARDIA

• NEKEA

• GOGO

• FRUSTRAZIOA

• KITZIKAPENA

Askatasuna
zerbait positiboa
ala negatiboa da
zuretzat?

Askatasuna
loturarik eza
al da?

ASKATASUNA ETA
ERANTZUNKIZUNA
AURKAKOAK AL
DIRA?

Askatasuna
berezkoa
al zaigu?

Askatasuna
eskubide bat
al da?

Ala eginbehar
bat da eta
irabazi egin
behar da?

Aske izateko
ESKUBIDEA ala
EGINBEHARRA?

Zer
iruditzen
zaizu
"Aske
izateko
lotu"
esaldia?

ZER ASKATASUN
AHALEGINTZEN
ZARA PRAKTIKAN
JARTZEN ZURE
EGUNEROKOAN?

"Askatasuna
handitu ahala
erantzunkizuna
ere hala"
esaldiari zer
deritzozu?

Zure askatasun
horietarikoren batek sortzen
al dizu erantzunkizunik?

Zer askatasunek, zer erantzunkizun?

ASKATASUNA	ERANTZUNKIZUNA	NOREKIKO?

Askatasunaren
kudeaketa zaila
al da? Eta ez-
askatasunarena?

Pertsona bat
izan al daiteke
askegia?

Askatasuna izan al
daiteke handiegia?

Askeegi
sentitu
al zara
inoiz?

Zure ASKATASUNAK mugak al ditu?

Zure askatasunak zure egunerokoa
mugak al ditu? Zein?

-
-
-

Zure inguruan
zu baino
pertsona
askeagoren
bat ezagutzen
al duzu?
Zergatik da
zu baino
askeagoa?

Gaur egungo
gure gizartean
non ditu giza
askatasunak
muga
handienak zure
ustez?

Gizonezkoak emakumezkoak baino
askeagoak al dira? Diruak
askatasuna ematen al du? Gorputz
normatibo batek askatasun aukera
gehiago al ditu? Heteronormatiboa
ez den harreman batek? Europear
txuri batek? Eta gazte batek?

Gaur egungo
gizartean zer gizaki
motak garatu
ditzake askatasun
esparru gehien?
Deskribatuko?

Zure askatasuna inguruko begiradek mugatzen, baldintzatzen al dute?

Zure barne eta kanpo askatasuna erraz uztartzen al dira? Ala gatazkan bizi dituzu?

Zure askatasunari zuk zeuk mugak jartzen al dizkiozu?

NON?

NOIZ?

ZERGATIK?

GURE
ASKATASUNAK
BA AL DU
ERLAZIOK...

DENBORAREKIN

INGURUAREKIN

BELDURRAREKIN

MAITASUNAREKIN

LOTUREKIN

KOMUNITATEAREKIN

UKO EGITEAREKIN

GORPUTZAREKIN

Heteronormatibitatea, gorputzen normatibitatea, prekarietatea, zentsura, kontrola, kapitalismoa, inperialismoa, hegemonia ideologikoa, manipulazioa, boterekeria...

zure askatasunarentzat mugak al dira?

Gaur egungo gizartean askatasunak dituen mugak zabaltzea nahiko al zenuke? Guztiak?

“

“Gizakiongan denbora gezi garrantzitsua da etorkizuna. Proiektuak asmatu ahal izatea, eta oraina, dagoena, etorkizuneko proiektuaren arabera aldatzea.

Pertsona bati edo herri bati ukatzen zaionean etorkizunerako proiektuak gauzatu ahal izatea orainaldian, ukatzen zaiona gizatasuna da”.

Zuri ere horrela dela iruditzen al zaizu?

Euskaraz
hitz egiteko
aske al zara?
Edonon?

Zure askatasun esparruak
garatu al ditzakezu euskaraz
gaur eta hemen?

EUSKARAZ
aske al zara?

Euskaldun batek,
espainol batek eta
frantses batek beren
askatasunak garatu
eta gauzatzeko aukera
berdinak al dituzte?
Zertan dira desberdin?

Euskaraz ari zarenean, euskaraz
bizi zarenean, askeago al zara
ala ez-askeago? Ala biak?

ZERTAN?

ASKEAGO

EZ-
ASKEAGO

-
-
-
-

Euskaraz hitz
egitea hautu bat
al da zuretzat?
Erabaki bat,
ahalegin bat? Ala
"natural" bizi zara
zure bizitzako
esparru guztietan
euskaraz?

Kulturalki
azpiraturiko herri
bateko kide izatean
zer askatasun
galtzen dira?
Irabazten al da
batere?

Bizi garen mundu eredu
honetan euskarak eta
euskaldunok askatasun
esparruak gorde
eta zabaldu egingo
ditugula uste duzu,
ala desagertarazteko
arriskua dagoela?

Noiz, non, norekin edo zerekin sentitzen zara preso?

NOIZ

NON

NOREKIN-
ZEREKIN

Zure ustez lehenagoko gizarteetan zertan ziren gu baino askeago? Eta gaur zertan gara askeago? Etorkizunean zertan izan gaitezke askeago?

Askatasuna garrantzitsua al da zuretzat ala askatasunaren gainetik beste balio batzuk lehenesten dituzu?

ZIURTASUNA ZORIONTASUNA
LASAITASUNA ABERASTASUNA
EDERTASUNA ...

Noiz
sentitzen
zara
PRESO?

Zuk noizbait norbaiten askatasuna murriztu al duzu? Noizbait norbait preso sentiarazi al duzu?

Zuk noizbait norbaiten askatasuna handitu al duzu? Noizbait norbait askeago sentiarazi al duzu?

Noiz , non, norekin edo zerekin sentitzen zara aske?

NOIZ

NON

NOREKIN-
ZEREKIN



Aske izateko ausardia handia behar da, eta bakoitzaren ezagutza handi bat ere bai; gure beharrak, gure nahiak, gure gaitasunak zeintzuk diren ezagutzeko. Eta gure inguruaren ezagutza handi bat ere behar dela esango nuke.

Zuri ere horrela dela iruditzen al zaizu?

Zure egunerokoan zure askatasun esparruak zabaltzen ahalegintzen al zara?

EKRAZA
AL DA?

ASKATASUN NAHIA
ETA GATAZKA ESKUTIK
AL DOAZ NAHITAEZ?

Zure askatasuna mugatzen dutenen
kontra egiten
al duzu ezer?

Zure askatasuna murrizten duten
eragile desberdinak identifikatuta
al dituzu? Zein dira?

-
-
-

Borrokarik gabe ASKATASUNIK BAI?

ADIERAZPEN ASKATASUNA

IRTZI ASKATASUNA

ELKARTZEKO ASKATASUNA

MUGIKORTASUN ASKATASUNA

ASKATASUN POLITIKOA

HIZKUNTZA ASKATASUNA

PENTSAMENDU ASKATASUNA

SINESMEN ASKATASUNA

SEXU ASKATASUNA

ERABAKITZEKO ASKATASUNA

ASKATASUN EKONOMIKOA

ASKATASUN FISIKOA

ASKATASUN ESTETIKOA

...

ONDORENGO
ASKATASUN HAVEK
GARRANTZITSUAK AL
DIRA ZURETZAT?

Aipatutako
askatasun
horietako
hainbat giza
eskubidetzat
hartzen dira,
baina betetzen
al dira?

Zer askapen mugimendu ezagutzen
dituzu? Aipatu batzuk.

-
-
-

Parte hartzen al duzu
askapen mugimenduren
batean?



Badira gure askatasuna oso argi, oso modu agerikoan zapaldu edo murrizten duten eragile ugari. Badaude beste anitz-anitz ez direnak hain agerikoak, zailagoa dena hauek identifikatzea, nola funtzionatzen duten ulertzea. Eta nik uste horren identifikazioan, horren ulertzean, horri aurre egiteko estrategiak eta moduak garatzean hor garatzen dela gure aske izateko gaitasuna.

Zuri ere
horrela dela
iruditzen al
zaizu?